



TRALHAIRES, MENDIEN URDINA BAINO HARATAGO

Mugak puskatzen dituen proiektuan murgilduta gabiltza Soinuenea, Ortzadar eta Lo Nau elkarteak. Gipuzkoa, Nafarroa eta Gaskoiniako sortzaileak elkartzen dituen proiektua da.

Urte honetan lanpetuta gauzkan proiektu garrantzitsua Gaskoiniako *Lo Nau* eta Nafarroako *Ortzadar* elkarteekin batera egiten ari garen *Tralhaires per delà lo blu de las montanhas* da.

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak diruz lagundutako proiektu honetan ondare immateriala ikertzen eta ezagutzera ematen aritzen garen hiru elkarte ari gara eta hiruen artean memoriaren transmisioari eta sorkuntzari buruzko lana ari gara garatzen. Hiru elkarte izanik, elkar osatzen duten hiru ataletan banatu dugu lana: antzinako dantzen koreografia ikerketa bat, pelikula eta liburu batez osatutako argitalpena, eta ikuskizun bat.

Ortzadar elkarteak Nafarroako eta Biarnoko makil-dantzak ikertu eta horren inguruko sorkuntza koreografikoa egin du.

Soinuenea argitalpenaren arduraduna da. Juan Mari Beltranek zuzenduta Nafarroako Faltzes herriko Maya Aguirre artzain familiaren inguruko lana ari gara prestatzen. Lan hori egiteko Juan Marik berak urtetan Faltzesen

artzaintzaren inguruan egindako grabazioak erabili ditu, istorioa osatzeko behar diren datuak bildu eta falta diren irudi berriak ere hartu eta gehituz.

Faltzesko artzainei buruzko informazio ugariarekin batera, lan honetan transhumantzia zer den eta artzainek egin behar izan dituzten lanak zeintzuk izan diren ere azaltzen da. Guzti horrekin batera Nafarroako eskualde horretan kantatzen diren jotak ere aztertu dira.

Lo Nau elkarteak Joan Francés Tisnèr-en zuzendaritza artistikoarekin *Tralhaires per delà lo blu de las montanhas* ikuskizunaren sorketa lana gidatzeaz arduratu da. Lo Nauk egindako bilketa lanean eskuratutako materialaz gain, Ortzadar eta Soinueneak eskuratu eta sortutakoa ere baliatu du ikuskizuna asmatzeko. Sorkuntza berrian musikaz gain dantza eta irudia baliatu dira hainbat molde puskatzen dituen performance berritzailea lortuz.

Ikuskizun hauek era ugaritan zabalduko dira publikora Euskal Herriko eta Akitaniako bazter ezberdinetan.

Maiatzaren 3 eta 4an proiektu honen lehen emaitzak Faltzesen aurkeztu ziren. Asteburu horretarako Faltzesko Udalak antolatutako egitarauan artzaintzarekin lotutako tresnak biltzen zituen erakusketa jarri zuten. Erakusketa horretan, nola ez, makina bat soinu-tresna ere baziren.

Erakusketaz gain, *Irasko* pelikularen aurkezpena eta proiektzioa egin ziren. Pelikula hau Juan Mari Beltran prestatzen ari den argitalpenaren parte bat da, liburu batekin osatuko dena.

Pelikula maiatzaren 3an ikusteko aukera izan bazen, hurrengo egunean *Tralhaires, per delà lo blu de las montanhas* ikuskizunaren txanda izan zen. Joan Francés Tisnèr-ek gidatuta Lo Nau eta Ortzadarrek prestatutako emanaldia Faltzesko Pedro Iturralde gizarte-etxean estreinatuta zen.

Proiektuak aurrera darrai eta udazkenerako liburua iritsiko da. Horren ondoren ere aurkezpen eta emanaldi gehiago izango dira eta tartean Oiartzunen egingo dena, abenduaren 13 eta 14an.



TRONPAK BELOAGA GAZTELUAN

HMberriaken aurreko zenbakian Idiazabalgo borda batean azaldutako tronparen berri eman bagenizuen, oraingo honetan Oiartzunen topatutakoen berri dakargu.

Oiartzungo Gurutze auzoko Arkaleko haitzetan kokatuta zegoen Beloaga gaztelua Nafarroako erresumak bere mugak babesteko zituenetako bat zen. Azken urteetan aspaldi suntsitutako eraikuntza hura berreraikitzen eta inguruaren azterketa egiten ari dira.

Azterketa horretan garai ezberdinetako hainbat objektu aurkitu dituzte eta tartean tronpak. Lan horietan ari den taldean lagundu duen Jon Aldaia Hondarribiarrak topatutakoak dira argazkian ageri diren bi tronpa horiek. Jon Aldaiak berak prestatutako txostenean azaltzen duenez Arkaleko haitzen hegoaldean aurkitu zituen; bietan luzeena iazko maiatzaren 4an gaztelutik 50 bat metrora eta motzena urte bereko abuztuaren 12an gaztelutik 120 bat metrora. Hasieran beste zerbait izan zitekeela pentsatu bazuten ere, buelta asko eman eta argazki mordo bat begiratu ondoren tronpak izan zitezkeela pentsatu zuten. Txostenean gehitzen duenez, soinu-tresna mota honek jatorria Asian izango luke eta XIV. mendean iritsi zen Europara. Bi tronpetan luzeena zaharrena ere badela uste du Jon Aldaiak. Gainera, bere formarengatik eta egiteko erabili zen materialarengatik, erdiarokoa zela uste du.

Bi tronpetan pasatako denboraren eragina nabarmena da



Beloagako gazteluaren inguruetan Jon Aldaiak aurkitutako tronpak. (Arg. Jon Aldaia)

eta mutu daude, biek mihia falta baitute. Soinuenean bi altxor hauen erreprodukzioak bideratzen ari gara Oiartzun Nafarroa zen garaiko hotsetako batzuk berreskuratzeko.

JOSEBA ZUAZNABARREN OMENEZ

33. Txalaparta Festa maiatzaren 24 eta 25ean ospatuko da Hernanin bertako Musika Eskola Publikoaren parte den Ttakun Ttan Takun taldeak antolatuta.

Lehenengo urteko abuztuan hil zen Joseba Zuaznabar omenduko da aurtengo edizioan. Txalaparta eta bera inguratzeko duen kulturaren transmisioan gogotsu aritutako gizona izan zen Joseba eta ahalegin horretan jardun zuen Txalaparta Festan ere.

Maiatzaren 24an Biteri Kultur Etxean izango den emanaldi bereziaren lehen zatian Joseba Zuaznabarren omenezko bideoa proiektatuko da, eta gero Hernaniko Bihotx taldearen saioa izango da.

Hurrengo egunean txalaparta saio libreterako aukera emango da eguerdian Ezkiaga pasealekuan, Hernani Musika Eskolako musikari talde ezberdinak alde zaharrean kale jiran dabilzan bitartean. Bazkaltzeko ordua 14:30etan jarri dute, eta bertara joan nahi duenak 16 eurotan salduko diren txarteletako bat eskuratu beharko du. Arratsaldeko bostetan hasiko da Txalaparta Jaialdi Nagusia. Horren ondoren Txalapoteoa izango da Ander García Santestebanekin eta eguna bukatzeko Txalaparta Party Aparta Hernaniko Gaztetxean M. Fraktal, DJ Barru eta beste batzuekin.



BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1.134

Antolatutako taldeak: 44

Bisitari kopurua maiatzera arte: 61.873

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16.610

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus

